

Galdera

"Kaixo, Laura:" / "Kaixo Laura:": gutun informaletan, hasierako agurrean, puntuazio-markari dagokionez, zein da egokia eta zein okerra edo biak daude ondo?

Erantzuna

Hasierako agur horretan deikia dago, eta **komaz bereizi behar da** tartekia da eta:

"Kaixo, Laura:"

1/ Ikusi [Puntuazioa – EIMA estilo-liburua](#) (2.2.2. Komaz idaztekoak)

...

Deikiak ere tarteki dira, eta komaz bereizi behar dira:

(92) Kaixo, **lagunok**:

(93) Egun on, **Iñaki**:

(94) Zorionak, **Sorkunde**!

(95) Zatoz, **Edurne**, lehenbailehen!

(96) Ondo al zaude, **polit hori**?

(97) Etorri hona, **neska-mutilok**!

...